

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Osasunak, NOZ-Oko Erizaintza-arloan ikerketa sustatzeko, 15.000 eurora bitarteko laguntzak eskainiko ditu

Epea bihar hasi eta datorren azaroaren 5ean amaituko da

Osteguna, 2018.eko urriak 4

Osasun Departamentuak laguntza-deialdia argitaratu du gaur Nafarroako Osasun Zerbitzuaren-Osasunbidearen (NOZ-O) Erizaintza-arloan berrikuntza-mailako ikerketa-jarduera areagotzeko asmoarekin; laguntza 15.000 eurokoa izango da. Diru-laguntzak eskatzeko epea bihar irekiko da.

Laguntzaren oinarriak [Nafarroako Aldizkari Ofizialean \(193. zk.\)](#) argitaratutako ebazpen batean jasotzen dira, eta laguntza-unitateetan ikerketa bultzatzeko erabiliko dira, betiere proposamena ondo definitua badute eta NOZ-Oko lan-zentroetan ibilbide garrantzitsua egiaztatzen duten profesionalak baldin badituzte.

Ikerketa areagotzeko hautagaiek funtzionario, estatutupeko edo kontratuko lotura izan beharko dute Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin-Osasunbidearekin, erizaintzako langile bezala, areagotzeko eskaera egiten den unearen eta emateko ebazpen-egunaren arteko denboraldian zehar.

Proiektuak gehienez 12 hilabetekoak izango dira, eta proiektuak hautatzeko kontuan hartuko dira proposamena eta NOZ-Orekiko interes estrategikoa, Nafarroako 2014-2020 Osasun Planean markatutako lehentasunezko lan-eremuen arabera, gaixoaren segurtasunari dagokionean (erorketen prebentzioa, etzanera bidezko ultzeren prebentzioa, euste fisikorako eta farmakologikoetarako neurriak egokitzea eta kontrolatzea, ospitale-egonaldiarekin loturiko narriaduraren prebentzioa eta portaera suizidaren prebentzioa). Gainera, Nafarroako Osasun Zerbitzuaren-Osasunbidearen bestelako programa espezifikoak aplikatzea baloratuko da.

Laguntzetarako jarritako 15.000 euroekin, ekimen horri heldutako Erizaintzako profesionalen ordezkoko langileak kontratatzeko kostua finantzatuko du Osasunak. Zuzkidura ekonomikoa gehienez 12 hilabetekoa izango da.

Izapidea

Laguntzak elektronikoki izapidetuko dira, [Nafarroako Gobernuaren web orrialdeko izapideen katalogoaren](#) bitartez.

Laguntzak eskuratzeko, profesional interesatuak eta haren laguntza-unitateko arduradunak sinatutako eskaera aurkeztu behar da, dagokion zentroko zuzendaritzaren oniritzi eta guzti. Eskaerarekin batera

honako hauek aurkeztuko dira: ezarriko den Hobekuntza Plana, esku-hartzearen helburuak, ekintzak eta ebaluazio-adierazleak ongi definituta; baita ere, garatu nahi den jardueraren kronograma eta xehetasuna; eta eskatzailearen curriculum vitae, daqoen eredu normalizatuaren arabera beteta.